

ANHITZAK

Gasteizko hizkuntza-aniztasuna

2020ko topaketa

VADILLO, Álex - URZELAI, Elena

Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua

Artikulu honetan Gasteizen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren testuinguruan aniztasuna lantzeko jorratu diren ekintzen berri eman nahi izan dugu eta, bereziki, Udaleko Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuarekin batera, eta Topagunearekin lankidetzan, antolatu dugun ANHITZAK topaketaren berri. Ekintza horrek, bere sinpletasunean, aniztasunaren inguruan defendatzen dugun ikuspegia ondo bildu duela uste dugu.

1. Zeharkakotasuna

XXI. mendean esku artean ditugun arazorik gehienak arazo konplexuak dira. Ertz eta korapilo ugari dituzte, eta Administrazioari kosta egiten zaio halakoxeei irtenbidea ematea. Administrazioa, oraindik orain, ez dago konplexutasunerako ondo prestatua. Kontrako bidea da, ordea, bere lan-estilo klasikoa: arazoa sinplifikatu egin, harik eta esku artean ditugun tresnekin arazo horri aurre egiteko modua izan arte. Logika sektorialak aplikatzen ditu, dimentsio bakarra duten arazoei erantzuteko.

Immigrazioarekin eta aniztasunaren gestioarekin zerikusirik duten arazoak, berez, horrelakoak dira, izatez eta egitez. Arazo «gaiztoak» edo «korapilatsuak» esaten diete ingelesez: «*wicked problem*». Izan ere:

- Normalean ez dugu arazoa ondo mugatzeko behar den informazio guztia, edo ditugun datuak nahasiak eta kontraesankorrak dira.
- Tartean dauden eragileak asko eta askotarikoak dira. Interes komunak dituzte batzuetan, baina kontrajarriak ere bai besteetan.
- Arazoa ezin da bakartu; multzo baten parte da. Irtenbide bakoitzak arazo berriak dakartza bere baitan. Arazoak askotarikoak dira, eta denak elkarri lotuta daude.
- Zaila da arazo horiei guztiei batera ekitea. Ez ditugun baliabideak beharko genituzke horretarako.

Zeharkakotasuna bada, geure ustez, egoera horri erantzuteko bide bat. Erakunde osoaren engaiamendua ziurtatzen duen kontzeptua da. Erakundearen atal soil batek helburuak bere gain hartzerik ez daukanean, erakunde osoak ekiten dio, eta horretarako estrategiak, tresnak eta bitartekoak antolatzen ditu.

Kontzeptuak, beraz, inplikazio eta aukera interesgarriak ditu, eta horrelaxe jaso genuen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren testuan:

- Zeharkakotasunak aukerak zabaldu egiten ditu, sail eta zerbitzu guztiek hizkuntza irizpide egokiak barneratzeko.
- Era berean, zeharkakotasunak hizkuntza-normalkuntza sail guztion eginkizuna dela barneratzeko aukera dakar, eta jardun osoari dagokiola ohartzeko, eta ez kanpo komunikazioei soilik.
- Zeharkakotasunak lankidetzarako aukerak ugaritu egiten ditu, eta ekintza eta programa batzuk era bateratuan eta partekatuan lantzeko aukerak eman.

Baina, hitz *fetixea* ere izan daiteke, benetan operatibizatzen ez bada, hau da, proiektu eta lan egiteko modu jakinetan gauzatzen ez bada.

2. Aniztasunaren lanketa hainbat zerbitzutan

Aukera hau baliatu nahi izan dugu, era berean, atzera begira jartzeko eta egin-dako lanari buruzko gogoeta egiteko, aniztasunaren gaiak zein bilakaera izan duen 2003. urtetik hona Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuan, alegia. Adierazgarria

da gai horren bilakabidea, hau da, *nola*, *norekin* eta *zertarako* hasi ginen lanean eta gaur egun *nola*, *norekin* eta *zertarako* ari garen, ordea.

2.1. Aniztasuna Euskara Zerbitzuan

Euskara Zerbitzuak bi ildo izan ditu aniztasunari dagokionez:

Informazioa eta sentsibilizazioa, atzerriko jatorria duten herritarrei begira.

Euskara ikasteko eta hizkuntza aniztasuna lantzeko baliabideak.

Lehenengo ildo horri dagokionez, hortxe kokatu behar dugu harrera linguistikoarekin izan dugun kezka. Izan ere, harrera plan baten beharra aldarrikatu izan dugu, beti ere kontzienteak ginela, langintza horretan ezin ginela bakarrik aritu. Noiz edo behin, besteen gaitan ez sartzeko ere esan izan digute («Haur ola, zirola») edo, artez esan gabe ere, horrela pentsatu izan dute.

Zeharbidez hainbat ideia zabaldu nahi izan dugu:

- Etorkinak Euskara Zerbitzuaren xede-talde bat izan badira, geuri dagokigu euskarari buruzko informazioa ematea eta harrera definitzea.
- Gainera, aniztasuna onarrarazi ta ikusarazi nahi diegu. Euren beharrei duintasunez eta kalitatez erantzuteko baliabideak eskaini nahi dizkiegu, eta hori guztia diskurtso positibotik egin nahi dugu.
- Eleaniztasuna nahitanahiezko utopia dugu: geurea defendatu baina *beste guztiari* irekita gaudela egin defentza hori. Hizkuntzak kultura unibertsalerako sarbideak dira. Eleaniztasuna aberasgarria dugu.
- Gasteizko errealitatea eleanitza irudikatu behar dugu, eta euskara kohezio-hizkuntza izatea nahi dugu, identitate plurala helburu dugula.

Esan bezala, zeharbidez landu nahi izan dugu hau guztia. 2011n antolatu genuen komunikazio-kanpainan («Elebiduna naiz, aberatsa naiz»), esate baterako, arreta berezia jarri genuen, protagonistak Gasteizko jatorri askotako lagunak izan zitezen: Gasteizkoak, Aljeriakoak, Kolonbiakoak, Ingalaterrakoak... Elebidunak/eleanitzak ziren eta euskara ikasten ari ziren.

Baliabideei dagokienez, euskara ikasteko dirulaguntzak eskaini ditugu eta AISA programa antolatu izan dugu. Gainera, EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAREKIN batera, bi programa antolatu ditugu, berariaz aniztasuna lantzeko helburu dutenak: AUZOKO eta LINGOLANG, biak ala biak aski ezagunak. ANHITZAK programak bide horretan sakontzeko asmoz sortu zen, baina horretaz aurrerago hitz egingo dugu.

AUZOKO programari buruzko xehetasunak ematea merezi du, geure ustez, ezaguri oso interesgarriak dituelako eta neurri batean hirian egonkortu egin delako. Euskara, aniztasuna eta bizikidetzaren oinarri dituen programa da AUZOKO. Hiru helburu ditu:

Euskaratik urrun bizi direnak euskarara hurbiltzea.

Herritarrak gure herrietako hizkuntza-aniztasunaz jabetzea.

Hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jartzea, norberarena aintzat hartuta, euskara kohesio hizkuntza izan dadin.

Horretarako AUZOKO taldeak sortzen dira, eta bertan bi perfileko parte hartzaileak biltzen dira: «Auzotarrak» (euskaraz dakitenak) eta «Auzokideak» (euskaraz ez dakitenak). Taldekoak astean behin biltzen dira dinamizatzaile baten eskutik, elkar ezagutzeko, bakoitzaren kultura besteei erakusteko eta oinarri-oinarrizko kontu batzuk euskaraz ikasteko.

Egitasmoa Gasteizen 2016an sortu zen RAMÓN BAJO IKASTETXEKO guraso elkartearen lankidetzaz eta Gasteizko Udalaren laguntzaz. Handik Gasteizko alde zaharrera zabaldu zen, eta orduz geroztik urtero sortzen da talde hori, nahiz eta gorabehera handiak izan.

Saiakerak egin dira dinamika hori beste auzo batzuetan zabaltzeko ere: Aranzakarra auzoan (2016), Zabalzana auzoan (2016), Salburuan (2019)... Horietan taldeak sortu egin ziren baina, egonkortzera iritsi ez.

2020-2021 ikasturtean, esate baterako, 26 lagun ari da programan parte hartzen, gehienak emakumezkoak. Jatorriak honakoxeak dira: Euskal Herria (2), Ukraina (1), Kolonbia (1), Sahara (1), Rifeko Errepublikak (1), Bolivia (1), Frantzia (1), Brasil (1), Afganistan (1), Andaluzia (1), Venezuela (2), Ginea Konakry (1), El Salvador (2), Osetia (1), Bielorrusia (1), Maroko (6), Italia, (1), Georgia (2).

2.2. Aniztasuna gizartegintzan

AISA ikastaroak 2006an antolatzen hasi ginenean, Gizartegintza Saileko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen laguntza izan genuen. Ikastaroen zabalpena haien bidez egin zen, egin ere, baita ikasleak eskuratu ere, gizarte-prestazioak izapidetzeko eta eskatzeko unean AISA ikastaroak, besteak beste, eskaintzen zizkielako, gizarteratzeko edo lanbideratzeko laguntzarik beretu nahi bazuten.

Garai hartan, gainera, etorkinei harrera egiten dien NORABIDE zerbitzuarekin lan-kidetzan beste hainbat AISA talde antolatu zen, baita kulturartekotasuna ardatz izan zuten udalekuak eratu ere.

2.3. Aniztasun zerbitzua

Gasteizko Udalean horren aurrekariak baziren ere, gaur egungo Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzua 2015ean sortu zen. Gasteizko Bizikidetzeta eta Aniztasun Plana prestatzea izan zuen lehen eginkizunetako bat. Bertan, euskararen balioa, printzipio gidari gisa, komunitatea eraikitzeko erronkaren baitan jaso zuten. Helburuen artean, honakook:

- Bi hizkuntza ofizialen egoera aztertzea, bizikidetzarekin eta aniztasunarekin lotuta.
- Euskararen irakaskuntzaren eskaintza atzerritarrengana egokitze gogoeta egitea.
- Lan-mahaia sortzea, euskararen erabilera sustatzeko plan orokorraren testuinguruan.
- Euskararen eta hizkuntza aniztasunaren programa atontzea.

Horiek gauzatzeko bidean daude, elkarrekin lantzen eta eraikitzen ari garen hurrengo hauetan:

- Bizikidetzako behatokian Gasteizko errealiterara hurbiltzea, hizkuntza-aniztasunaren ikuspegitik, euskara ardatza dela.
- ANHITZAK jardueraren antolaketaren baitan sortutako lan-taldeari jarraipena ematea, «hizkuntza-aniztasunaren eta euskararen mahaia» bideratzeko helburuz.
- Harrera linguistikoa egoki egiteko azterketa eta harrera-protokolo integrala sortzeko, udaleko beste zerbitzu eta sail batzuekin lankidetzan aritzea (Gizartegintza, Hezkuntza, Gizarte-etxeak...).

2.4. Aniztasuna hezkuntzan

Eskola segregazioak kezka piztu du Gasteizko hezkuntza komunitatean. Programa interesgarriak garatzen ari dira egoera hori leundu nahian: EUSLE, MAGNET - ERAKARRI edota HAMAIKA ESKU, esate baterako.

- HAMAIKA ESKU programaren bidez, egoera bereziki konplikatua duten ikastetxeen eskuetan baliabideak jartzen dira, ikasleen emaitza akademikoak hobetze aldera.
- MAGNET - ERAKARRI programaren bidez, ikastetxeen erakargarritasuna landu nahi da. Horretarako, ikastetxeen eta puntako entitate batzuen arteko aliantza edo uztardurak sustatzen dira, ikastetxeon hezkuntza-programak eraldatzeko.
- EUSLE programaren bidez, berandu iritsi diren ikasleei hizkuntza-tutoretza eskaintzen zaie, hizkuntzaren ikaskuntza eta integrazioa, oro har, bizkortzeko.

Bestalde, 2019-2020 ikasturtean bizikidetzaren eta hezkuntza-ekitatearen aldeko hitzarmen markoa sinatu zuten Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak. Hainbat jarduera edota eskuhartze aurreikusi du, udal zerbitzu ezberdinen artean koordinatu eta gauzatu beharrekoak. Honako hauek, besteak beste:

Eskolaratze-prozesuan dauden familiei informazioa eta orientazioa ematea, eskolaratze orekatuaren alde.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa, herritarrei zuzenduta, aniztasunaren balioa nabarmentzeko.

Ikasle atzerritar iritsi berriak hartzeko koordinazioa.

Gurasotasun positiboaren paradigmatik guraso-gaitasunak lantzeko, ikastetxee-tako familiei zuzentzen zaizkien programak indartzea.

Ikastetxeak auzoetara irekitzea eta, komunitatearen lankidetzaz eta inplikazioaz gizarte- eta hezkuntza-ekimenak bultzatzea.

Horiek guztiek euskararen ikuspegia txertatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute.

3. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana

2013-2017 urteetan Gasteizen, Euskara Sustatzeko Ekintza Planak hezkuntzaren alorrean kokatu zuen aniztasunaren esparruan lan egiteko beharra. Hala bada, honako zeregin hau eman zitzaigun:

- Atzerriko familiak euskarara gerturatzea, elkar-ezagutza bultzatuko zuten proiektuen bidez. Horretarako, Gasteiz hirian bizi dugun hizkuntza-aniztasunaren balioa aitortzea helburu izango zuen topaketa taxutu behar genuen.

Han, gerora buruan erabili izan ditugun hiru ideia-gako agertu ziren dagoeneko:

- Euskara gerturatzea helburu izatea.
- Elkar ezagutza bultzatzea.
- Hizkuntza-aniztasunaren balioa aitortzea.

ANHITZAK proiektua sortu zen horretarako, EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAREN laguntzaz. Berez ez da ideia berria; izan ere, jarduera hori antolatzeko, frankofoniako hainbat herrialdetan antolatzen diren *Café de Babel*¹ bezalako jardueretan oinarritu ginen, geurera moldatuta. Proiektuak emaitza ona atera zuen, geure ustez. Hala:

126 lagunek parte hartu zuten: 54 emakumezko, 40 gizonezko eta 32 haurrek.

Zeintzuk hizkuntza ezagutzen zituzten galdetu zitzaizanean, orotara 21 hizkuntza

¹ Hau da: «*Les cafés des langues, activités conviviales pour se reconstruire autour des langues*».

ezberdin azaldu ziren: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, portugesa, pulaarra, soussoua, wolofera, mandinga, alemana, sererra, kreolera, urdua, punjabera, pashtua, tagalao, arabiera, katalana, txekiera, amazigera, txinera. Pentsatzekoa da gehiago ere izango zela, bertaratutakoek aitortu ez bazuten ere.

Ama-hizkuntzaren garrantzia azpimarratu zuten guztiek (izenak berak zalantzak sortzen baditu ere): nortasuna, bihotza, emozioak, sentimenduak, ideia intimoak adierazteko, pentsamendua zehaztasunez adierazteko, ñabardurak transmititzeko...

Hurrengo plangintzaldian (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP - GASTEIZ / 2019-2022), immigrazioaren gaia berariaz jorratu genuen eta bi abiapuntu ezarri genituen:

1. Hiriak hazten jarraitzen du, era apalean bada ere: % 0,7tik % 1era bitartean urtero. Hazkunde horren parterik handiena migrazio-mugimenduei dagokie. Esan behar da, halaber, populazio horrek mugikortasun handia duela: nahiz eta hazkundera 2.000 biztanle ingurukoa izan, 10.000 biztanle ingurukoa izan daiteke, ordea, urtero Gasteizera iristen diren atzerritarrena. «Harrera» kontzeptuak, beraz, gaurkotasun oso-oso du.
2. Gasteiz hiri anitza da. Aniztasuna errealitatea da gurean. Gasteizko Udalaren Aniztasun Planak dioen moduan, kontua ez da «kultur aniztasuna sustatzea», baizik eta «aniztasunaren kultura sustatzea».

Hori horrela dela, bi erronka ezarri ziren:

1. Informazioa bideratzea edo trukatzeko erraztu beharra, elkarten arteko sarea sortuz; elkar ezagutzeko eta elkarren berri izateko bideak zabalduz.
2. Baliabideen berri elkarri ematea eta baliabide berriak sortzea.

Erronka horiek hiru ekintzetara bildu ziren:

1. Eragileon arteko komunikazio-bideak sortu, Udalaren Aniztasun Zerbitzua-rekin batera.
2. ANHITZAK2 antolatu. ANHITZAK ekimena aurreko plangintzaldian antolatu zen lehen aldiz. Gasteizen dauden hizkuntza-komunitateak identifikatu, haiekin harremanetan jarri eta goiz bateko jardunaldia egin, hizkuntzari buruzko kezak partekatzeko. Prozesuari berari eman nahi diogu garrantzi

handiagoa, jardunaldiari baino. Kulturarteko harremanak sortu, elkar ezagutu eta kezka partekatu, alegia.

3. Harrera-planak eta hizkuntza-irizpideak atondu, gaiak lantzeko eta eragileak formatzeko saioa prestatuz.

Horiek burutzeko, adostasun egokia aurkitu genuen Bizikidetzeta eta Aniztasun zerbitzuan eta, haiek ere beren beharrak mahai gainean jarri zituzten. Hartara, elkarrekin lankidetzan gauzatuko genuen jarduera bateratu genuen, hiru proiektu partekaturen inguruan:

1. ANHITZAK berriro ere antolatzea.
2. Aniztasun-mahaia osatzea, aniztasunari geuk ematen diogun begirada bera ematen dioten elkarrekin saretzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko.
3. Harrera-prozesuak aztertzea, hizkuntzen begiradatik.

4. ANHITZAK: hizkuntza-aniztasunaren ospakizuna

ANHITZAK antolatzeko, talde eragile zabala osatu nahi izan genuen. Honako sustatzaile hauek parte hartu zuten taldean: GURUTZE GORRIAK, ACCEMEK, GOIANEK, DENON ESKOLAK, EPA PAULO FREIREK, ADRAK, CASAL CATALÀ D'ARABAK eta GEU ELKARTEAK. Dinamizazioa EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK bideratu zuen.

Helburua ANHITZAK topaketaren bigarren edizioa antolatzea zen, aurrekoaren eskema berberari eutsiz.

Hartan ari ginela, krisi sanitarioak jo gintuen. Topaketa bitan atzeratu behar izan genuen, baina kontuak luze joko zuela ikusi genuenean, topaketa beste era batean definitzea erabaki genuen. Hauxe pentsatu genuen:

- Gasteizen antolatuta dauden zenbait hizkuntza-komunitate identifikatzea.
- Haiekin topaketa txikiak antolatzea, 4-6 pertsonakoak, unean uneko segurtasun-neurriak betetzeko.
- Topaketa horietan beren hizkuntzarekiko motibazioez galdetzea, eta euskara hurbiltzeko prestutasuna ikustea.
- Aurreko guztia bideo laburretan dokumentatzea.

- Lan hori amaitutakoan, aurkezpen publikoa egitea.

Proiektuak bigarren helburu bat ere bazuen. Produktuari baino prozesuari eman nahi genion garrantzia, lehen esan dugun moduan, eta talde eragile horretan esku hartuko zuten sustatzaileen artean interesa piztu, aniztasunaren inguruan elkarrekin lanean jarraitzeko. Hau da, aniztasun-mahaia osatu nahi genuen, datozen urteotan eginkizun horretan batera jarduteko.

5. «8+2» Komunitatea

Topaketen kronika txiki bat ekarri dugu atal honetara. Baliagarria izan daiteke Gasteizko aniztasunaren atzean dauden hainbat ideiaren berri izateko.

(1) Hassania

Gasteizen hassaniaz hitz egiten duten saharar asko dago, baita hizkuntza berean hitz egiten duten mauritaniar batzuk ere. Euren ustez, garrantzitsua da Gasteizen hazten ari zaizkien seme-alabek hango ohiturak eta tradizioak gogoan izatea eta hassaniaz hitz egitea. Beren iritziz, ez da kontu pertsonal hutsa, beren printzipioekin zerikusia du eta, eurentzat funtsezkoa da. Hori dela eta, hassania ikasteko eskolak antolatzen ari dira, astean bi egunetan, umeek hizkuntza gal ez dezaten. Bestetik, euskara ezagutzea eta ikastea ere kontu garrantzizkotzat jotzen dute, euskal gizartean integratzeko modurik zuzenena horixe baita. Oro har, harreman-sare zabalak dituzte gasteiztarrekin, eta beren ezagunen artean badira euskal hiztunak ere.

(2) Wolofera

Gasteizen Senegalgo komunitate handi samarra dago. Bertako 350 lagun baino gehiago bizi dira Gasteizen eta woloferaz hitz egiten dute, hori baita Senegalgo hizkuntzarik zabalduena. Hizkuntza ez galtzea garrantzitsua dela uste dute. Beren umeak Gasteizen jaioak dira baina, beren sustraiak eta kulturak ezagutu beharko lituzkete. Hizkuntza funtsezkoa da horretarako. Egunen batean haur horiek beren jatorrizko herria bisitatu nahi izango dute, aitona-amonak ezagutzeko, eta wolofe-

raz hitz egingo dute haiekin. Euskara dela eta, zaila iruditzen zaie gurasoek euskara ikastea eta erabiltzea, helduaroan iritsi baitira hona. Argi daukate, ordea, seme-alabentzat ezinbestekoa izango dela euskara jakitea, haiek hemengoxeak baitira. Euskara, gainera, baliabide ona dute integrazioa hobetzeko eta lan duina lortzeko.

(3) Zeinu-hizkuntza

Guztira, zeinu-hizkuntzaren 400 erabiltzaile inguru daude Gasteizen. Zeinu-hizkuntza bertoko hizkuntza dela aldarrikatzen dute eta, babes eta sustapen handiagoa behar duela diote. Zeinu-hizkuntza sutsu defendatzen dute, pertsona gorren aldarrikapenaren eta borrokaren emaitza bat izan delako. Euskara gertutik bizi dute, baina euskara ikasteko zailtasunak daudela azpimarratu dute, ez baita irisgarritasuna % 100ean bermatzen.

(4) Bulgariara

Beren ustean, bulgarieraren egoera nahiko ona da. Harro daude beren hizkuntza, kultura eta tradizioak gordetzeko gauza izan direlako. 300 bat bulgariar bizi da Gasteizen eta ahalegin guztia egiten dute seme-alabei euren hizkuntza transmititzeko. Horretarako, astean behin biltzen dira Gasteizko gizarte-etxe batean GASTEIZ-RODINA elkartearen bidez, transmisio hori bermatzeko. Bulgariako gobernuaren laguntza dute horretarako. Gure hizkuntzari dagokionez, euskara ikastea garrantzitsua dela uste dute, Euskal Herrian bizi direlako, eta euskara lurralde honen aberastasuna delako: errespetu kontua da, beren esanetan. Harro esaten dute, hiru urterekin seme-alabek berdin-berdin egiten dutela euskaraz, gaztelaniaz eta bulgariaraz.

(5) Pulaarra

Ginea Errepublikako 170 lagun dago Gasteizen. Fula etniakoak dira horietako asko, eta pulaarra dute hizkuntza. HAALY PULAAR elkarteko zenbait kidek beren komunitatearen berri eman ziguten. Gasteizera iritsi zirenetik, ahaleginetan jardun dute beren kultura bertokoekin partekatzen. Hainbat ekintza antolatzen dute urtean zehar. Ekintza irekiak dira, bertokoek ere parte hartzeko modukoak. Beren hizkuntzari eusten diote eta, kezka handia dute transmisioarekin: seme-alabek euren artean pulaarrez hitz egitea nahi dute. Bestalde, jakin dakite euskara ere garrantzitsua dela, integrazioa indartu, eta harrera hobea bermatzen baitu. Edozein

herritan zaudela, garrantzitsua da bertako hizkuntza ikastea. Haurrek eskolan euskaraz ikasten dute, eta helduek ere interesa erakusten dute, haurrei eskolan laguntzeko mesedegarria izan daitekeelako.

(6) Katalana

Gure hirian bizi diren katalan hiztunek beren hizkuntza eta kultura gordetzen eta transmititzen ahalegina egiten dute. Sare sendoa osatzen dute Gasteizen eta zaindu egiten dituzte beren arteko harremanak, elkarrekin katalanez komunikatu ahal izateko. Berezkoa dute katalanez hitz egitea, baina katalanez mintzatzea sentimendu bat adieraztea ere bada. CASAL CATALÀ D'ARABA elkartearen bidez ekintzak antolatzen dituzte, elkarrekin batzeko, katalanez hitz egiteko, eta beren ospakizunak batera ospatzeko: «Sant Jordi», «El Tió» eta «La Cantanyada», esate baterako. Halaber, oso ondo ulertzen dute euskararen egoera, beren hizkuntzarekin partekatzen baitute. Beren herrian, kanpotik bertara joandakoak katalanera hurbiltzea estimatua dute, oso. Horregatik, hain zuzen, beraiek ere euskarara hurbiltzen dira.

(7) Tamazight (Rif)

Hainbat herrialdetan bizi da amazigh herria: Tunisia, Maroko, Aljeria, Egipto, Kanaria uharteetan, Afrikako iparralde osoan... Ez dago daturik zein den tamazightaren transmisioa Gasteizen. Baina, tamazightari atxiki nahi diotela antzeman diegu, baita biziberritu ere. Bestetik, euskarekiko interesa erakusten dute, eta euskara biziberritzeko eskolan egiten ari den lana, neurri batean, miresten dute. Beren esanetan, nahi lukete Marokoko gobernuak ere beste horrenbeste egitea beren hizkuntzarekin. Amazigh herriak holako aitortza merezi duela uste dute.

(8) Arabiera

Gasteizen arabiar hizkuntza eta kulturaren egoera oso mugatuta dago. Lagunik gehienek tokian tokiko arabieraz hitz egiten dute, eta denek ezin dute arabiera estandar edo klasikoaz ondo hitz egin. Beren iritziz ez dago behar besteko inplikaziorik horretarako. Gasteizko Hizkuntza Eskolan, esate baterako, ez dago arabiera ikasteko aukerarik. Hizkuntza eta identitatea bat datozela uste dute. Euskara ba-

lioesten dute, harrera-herriarekin duten zorra dela uste dute, eta integrazioarako eta elkarbizitzarako beharrezkoa dela diote.

(9) Hizkuntza-aniztasuna eskoletan (LANDAZURI IKASTOLAKO gurasoak)

Gasteizko zentro aldean, alde zaharretik oso gertu LANDAZURI IKASTOLA dago. Ikastola berezia da, aniztasun handia biltzen baitu: guraso elkartean 22 herrialdetako familiak daude eta orotara 18 hizkuntzatan hitz egiten dute. Harrotasunez bizi dute aniztasuna, eta berariaz lantzen dute: gastronomiaren bidez, kultura horiek partekatuz, gurasoak euskarara hurbiltzeko aukerak sortuz... Beren ustez, horrelako ikastolak onak dira bai haurrentzat eta bai familientzat ere.

(10) Euskara eta hizkuntza-aniztasuna

GEU ELKARTEAREN laguntzari eskerrak, euskararen ezagutzaz, transmisioaz eta erabileraz hitz egin dugu euskaldun talde txiki batekin. Beren esanetan, «uste baino jende gehiagok euskara jakin arren, aurreiritziak apurtu, eta erabileraren traba diren lotsak gainditu behar dira». Beren iritziz, Gasteizko aniztasunak lagundu egin die hizkuntzeekin jarrera irekiagoa izaten.

Esan bezala, hau guztia Gasteizko aniztasunaren lagin txiki bat da. Nagusiki bost ondorio ageri dira egindako elkarriketa guztietan:

1. Komunitate guztiek berebiziko garrantzia eman diote beren jatorrizko hizkuntzari.
2. Hizkuntza horiek etxean transmititzeko gogoia eta desira adierazi dute.
3. Etxetik kanpo ere berariazko lekuak behar dituzte seme-alabak hizkuntza horietan sozializatzeko.
4. Oso argi dute seme-alabek euskara ere ikasiko dutela; eskolaren bidez, batez ere.
5. Horrez gain, horietako guraso batzuek euskarara hurbilduko direla adierazi dute, prozesu horretan seme-alabak laguntzeko, behinik behin.

Hau ez da ikerketa-lana. Hemen aipatu ditugunak testigantzak dira eta ez bes-terik. Ikuspuntu interesgarriak direla uste dugu, baina baliteke sesgo edo isuria egotea. Izan ere, komunitateekin lan egin dugu. Esan nahi da, topaketetan esku hartu duten pertsonak komunitate horietan eurretan biltzen edo bizi diren pertsonak dira. Gai horiei buruzko gogoeta egina dute honezkero, eta horren ondorioz nolabaiteko kontzientzia maila ere badute, ahalduntze maila, alegia.

6. Aniztasunaren diskurtsoa

Topaketa horren atzean badira, geure ustez, bi ideia garrantzitsu aipatzea merezi dutenak, aniztasunaren inguruko diskurtsoa ehuntzen lagundu baitigute. Honako hauek, bada:

Aniztasunaren balioa

Elebakartasuna ezinezkoa da (desiragarria ere ez, ziur aski).

Elebitasuna hizkuntza gutxituen hilgarria da.

Eleaniztasuna da hizkuntza txikiek eta ertainek bizirik irauteko duten biderik onena.

Aldebikotasuna

Berdinetik berdinerara.

Integrazioa norabide biko da.

Elkar ezagutu, elkar onartzeko.

Kontzeptu horietako asko Carme Junyent irakaslearengandik eta Bartzelonako Unibertsitateko GELA (*Grup d'Estudi de Llengües Amençades*) taldetik gureganatu ditugu. Laburbilduz, honako ideiak hauek azpimarratuko ditugu:

- Ezin pentsa daiteke etorkizuna elebakarra izango denik.
- Elebitasunak ere ez gaitu asetzen: bi hizkuntza, biak berdinak. Ez da errealista, eta hizkuntza txikia (gutxiagotua) izango da beti galtzailea.

- Ikuspegi etikotik ez ezik, ikuspegi egoistatik ere, aniztasuna sustatzea interesatzen zaigu. Etorri berriek gurekin eta gure hizkuntzarekin interesa izan dezaten, modurik onena guk beraiekin ere (eta beren hizkuntzarekin) ardura izatea eta erakustea da.²

7. ANHITZAK eta gero, zer? Aniztasun-mahaia

Harrera-prozesuetan eragile asko inplikaturik daudela ikusi dugu eta, hortaz, *atomizazio* arriskua ere badela. Garrantzitsua iruditzen zaigu eragile horien gutxi sintonia lantzea eta, denon indarrak eta ahaleginak norabide berean jartzea. Horixe da aniztasun-mahaia proposatzeko izan dugun arrazoietakoa bat.

Zalantzak izan ditugu, baina; koordinaziotik harago joan nahiko genuke. Izan ere, zaila da koordinaziorako batzordea denbora luzez lanean aritzea. Zerbait dinamikoagoa dugu buruan..., praktika-komunitatetik gertuago egongo den zerbait, koordinazio-batzordetik baino: informazioa bildu, esperientziak konpartitu, interes komunak aztertu, zer landu nahi genukeen elkarrekin erabaki eta elkarrekin ere garatuko ditugun proiektuak zehaztu.

Hain zuzen ere, beren malgutasunagatik iruditzen zaizkigu interesgarriak praktika-komunitateak:

- Interes bat partekatzen duten pertsonak dira.
- Beren ezagutza eta beren eskarmentua areagotu nahi dute.
- Elkarrekin eta elkarrengandik ikasi nahi dute, elkarlanean.

² Adibide modura, interesgarria da, esate baterako, etorri berri horietako batek kontatu duena hona ekartzea:

«Una tarda era a la facultat. Acabava d'arribar de l'Argentina i ningú no m'havia dit que les classes del doctorat sirien en català. La meva primera sensació va a ser de no entendre res. De pànic. De mal de panxa. Just al meu costat hi havia una noia molt prima i baixeta, amb unes ulleres grosses i un somriure immens. Mentre el professor explicava ja no recordo què, ella va moure la cadira per acostar-se'm i traduir-me el que es deia a classe. Aquella noia, la Txell, va ser la meva millor amiga, i un temps després va a ser un dels motius més importants per decidir-me a parlar en català: era la seva llengua estimada i jo l'estimava a ella» *El futur del català depèn de tu* (Carme Junyent, 2020).

- Partekatzea da: hartu eta eman.
- Atxikimendua libre da, malgua: norberak erabakiko du noraino iritsi nahi duen.
- Taldeak berak ebatziko ditu bere interesak eta zer jorratu nahi duen.
- Bertan parte hartzen duten teknikarien lana erraztatzailea da; baliabideak ematea besterik ez.

8. Harrera-prozesuak eta hizkuntzak

Aniztasun Zerbitzuak, bestalde, bizikidetza-behatokiaren bidez, proiektu bat abiatu du Gasteizko aniztasunaren mapari lehen hurbilketa egiteko, eta harrera-prozesuak hizkuntzen ikuspegitik aztertzeko.

Honako aztergai hauek aurreikusi dira:

- Gasteizko aniztasunaren argakia.
- Harrera eragileak. Zein dira? Hizkuntzekiko motibazioak. Zein informazio ematen dute? Hizkuntza-harrera / Lehen harrera.
- Baliabideak:
 - Gaztelaniari lotutakoak lantzeko.
 - Euskarari lotutakoak lantzeko.
 - Beren hizkuntzei lotutakoak lantzeko.
 - Baliabide nahikorik al da? Baliabide gehiagorik sortu behar al da?
 - Harrera linguistikoa, beste herrietan: jardunbide onak eta proposamenak.

9. Aniztasunaren mapa Gasteizen: lehen hurbilpen bat

Soziolinguistika Klusterrak Gipuzkoako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa sortu zuen 2018. urtean. Gasteizen ez daukagu horrelako azterketarik eginda, baina errodako datuak erabil ditzakegu aniztasunaren tamaina irudikatzeko.

2016ko erroldaren arabera 251.774 bizilagun zeuden Gasteizen. Horietatik % 13,25ek atzerriko jatorria zuten: 33.354 lagunek, alegia.

Pertsona horien artean, 145 jatorri-estatu zeuden. Estatu batzuetatik lagun bakarra edo lagun gutxi batzuk besterik ez zegoen, baina beste estatu batzuetatik, ostera, ia 5.000 kide. Bestalde, badakigu hizkuntza guztiek ez dutela beren estatuetan ere lege-estatus bera, eta ondorioz, ofizialak ez diren hizkuntzen hiztunak ditugula gure artean. Horrek irudi bat eman diezaguke, hizkuntza-aniztasuna ere zenbatekoa den erakusten digulako:

- 1.001-5.000 lagun [10]: Kolonbia, Maroko, Aljeria, Nigeria, Ekuador, Pakistan, Brasil, Paraguai, Dominikar Errepublika, Errumania.
- 501-1.000 lagun [8]: Peru, Venezuela, Portugal, Txina, Argentina, Bolivia, Frantzia, Kuba.
- 201-500 lagun [15]: Ukraina, Senegal, Georgia, Txile, Alemania, Ghana, Mauritania, Ekuatore Ginea, Moldavia, Kamerun, Bulgaria, Mexiko, Errusia, Nikaragua, Honduras.
- 101-200 lagun [9]: Italia, Mali, Erresuma Batua, Ginea, Ameriketako Estatu Batuak, Suitza, Polonia, Uruguai, Boli Kosta.
- 51-100 lagun [10]: Belgika, El Salvador, Gambia, India, Nepal, Guatemala, Angola, Kenya, Burkina Faso, Filipinak.
- 11-50 lagun [32]: Herbehereak, Albania, Irlanda, Ginea Bissau, Bosnia eta Herzegovina, Siria, Australia, Serbia, Lituania, Kongo, Kongo DR (Kongoko Errepublika Demokratikoa), Benin, Kanada, Txekiar Errepublika, Japonia, Panama, Bielorrusia, Egipto, Etiopia, Tunisia, Eslovakiar Errepublika, Suedia, Kroazia, Iran, Costa Rica, Mozambique, Korea, Austria, Irak, Bangladesh, Hungaria, Afrikako beste herrialde batzuk.
- 2-10 lagun [48]: Thailandia, Afganistan, Jordania, Mongolia, Indonesia, Mazedonia, Armenia, Norvegia, Finlandia, Sri Lanka, Vietnam, Sierra Leona, Ruanda, Turkia, Singapur, Liberia, Andorra, Kazakhstan, Afrika Erdiko Errepublika, Eslovenia, Letonia, Danimarka, Palestina, Libano, Saudi Arabia, Eritrea, Tanzania, Togo, Grezia, Israel, Malaysia, Dominika, Txad, Soma-

lia, Libia, Cabo Verde, Azerbaijan, Uzbekistan, Zeelanda Berria, Kanbodia, Arabiar Emirerri Batuak, Zimbabwe, Hegoafrika, Madagaskar, Gabon, Estonia, Islandia, Asiako beste herrialde batzuk.

- Lagun bakarra [13]: Yemen, Kuwait, Laos, Myanmar, Jamaika, Haiti, Zambia, Hego Sudan, Seychelles, Sudan, Maurizio, Luxenburgo, Malta.

Bibliografia

AIERDI X., URANGA; B. (2018). *Gipuzkoako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa. Azterketak eta proposamena*. Argitalpen Digitalen Zerbitzua: Soziolinguistika Klusterra (Euskara biziberritzeko ikergunea). https://www.gipuzkoa.eus/documents/882543/11611163/02+Aierdi_Uranga_2018.pdf.

BRUGUÉ, Q.; CANAL, R.; PAYA, P. (2015). «¿Inteligencia Administrativa para abordar “problemas malditos”? El caso de las comisiones interdepartamentales», in *Gestión y Política Pública XXIV* (1): 85-130.

GASTEIZKO UDALA (2005). *2005-2008 aldirako EBPN*. Argitaratu gabea.

————— (2010). *2010-2012 aldirako EBPN*. Argitaratu gabea

————— (2013). *2013-2017 aldirako EBPN-ESEP*. Argitaratu gabea. (2018). *Gasteizko Bizikidetzeta eta Aniztasun Plana. Laburpena*. Sarean: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/75/57/77557.pdf>.

————— (2019). *2019-2022 aldirako EBPN-ESEP*. Argitaratu gabea. Sarean: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/50/95/85095.pdf>.

————— (2021). *ANHITZAK 2020 topaketaren bideoak*. Sarean: <https://www.vitoria-gasteiz.org/>.

GASTEIZKO UDALA ETA UPV/EHU (2019). *La Escuela, la Ciudad y los Programas Magnet. Uda Ikastaroak. Hiri Hezitzailea: Udalak eta esku hartzeko ereduak, Eskola-Segregazioaren aurrean*. Sarean: <https://youtu.be/Liy7EEp-iKo/>.

IDIAZABAL, I., PÉREZ-CAUREL, M. (eds.) (2019). *Linguistic Diversity, Minority Languages and Sustainable Development / Diversidad lingüística, lenguas minorizadas Y desarrollo sostenible / Diversité linguistique, langues minoritaires et développement durable*. Argitalpen Digitalen Zerbitzua: UPV-EHU. Sarean: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/>.